

**FRATELLI TUTTI
(GUZTIOK ANAI-ARREBA)**

Frantzisko Aita Santuaren hirugarren Entziklika dogu “Fratelli tutti”, “Guztiok anai-arreba”. Anaitasun eta gizarteko adiskidetasunari buruz dihardu. Entziklika soziala dogu berau. Entziklikaren izenburua hartzen dau Asisko Frantziskoren karta batetik. Bere jarraitzailei, Ebanjelioaren arabera bizitzeko, idatzi eutsen kartatik. “Laudato Si” entziklikaren titulua be, Asisko Santuari deitso zor.

Deigarria da, “Laudato Si” idazteko inspirazioa Bartolome Patriarka Ortodoxoagandik hartzea, eta “Fratelli tutti”, ostera, Iman Ahmad Al-Tayyeb mahometarragandik, Abu Dabin izandako topaketan. Mugarririk bako Entziklikak ditugu “Laudato Si” eta “Fratelli tutti”. Honen aipamena dot oraingoan gogoan. Bestearena lehenago egin izan neban.

Mundu osoko anaitasunaren aurkako iluntasunak

Besteak beste, Europar Batasuna lortzeko zailtasunak. Antzeko zerbait gertatu da latinoamerikar integrazioaz eta beste hainbat lurraldetan ere bardin. Globalizazioak hurbiltzen gaitu baina ez gaitu egiten anaiago. Nazio aberatsak aberatsago eta pobreak pobregogo. Indibidualismoa indartzen doa kidetasunaren kaltetan. Kontzientzia historiko eza. Kolonizatze kultura barriak aurretikoen jakituria eta arima ezereztea. Ahalmen urrikoak eta zaharrak eta probetxuzko ez diranak baztertea. Horixe gertatu da toki askotan “Kobid-19” dala eta. Oinarritzko giza eskubideak han eta hemen zapalduta, batez be emaku-

meen eta umeenak. Lotsagarria dirudien arren, oraindik milioika bizi dira esklabo eginik. Neska eta mutikoen salerosketak. Badira munduan zehar bildurgarrizko erakunde kriminalak emakumeak behartzen dabezanak abortatzera gero fetuekin trafikatzeko. Erbesteratuen egoera penagarria. Komunikabide digitalen bidez, anonimatuan ezkutaturik, inongo lotsa barik, edozer eta edozein guzurretan hondatzeko. “Komunikabide digitalak izugarrizko dirutzaren morroi bihurtzen doaz”.

Bildurgarrizko pantaila honen aurrean, Frantzisko Aita Santua itxaropentsu datorkigu aurre egiteko. “Jaungoikoak, gizadian, onberatasun hazia isurtzen dihardu”. Adibide gisa, “Kobid-19” pandemia honentan gizarteak agertu dituan ontasuna eta laguntza aipatzen ditu. “Hainbat mediku, erizain, botikario, supermerkatuko langile, garbikuntzako langile, garraiolari, boluntario, lekaiume, abade, konturatu dira ezin dala bakarrik inor salbatu”.

Entziklikaren Ikono erakargarria

“Nor da nire lagun hurkoa?”, galdetu eutson Jesusi lege-maisu batek. Nahizta azpikeriaz egindako itauna izan, Jesusek erantzungo deustso argi “Samariar onaren” parabola hain eragingarria bat-batean asmatuz.

Entziklika honen ikono erakargarria dogu berau. Bigarren kapituluaren hasieran, oso-osorik, kopiatzen dau Aita Santuak eta jarraian sakon aztertzen jardungo dau. Entziklikaren ardatza eta hari eroalea dirudi.

“Jerusalendik Jerikorantz joian gizona, lapurren eskuetan jausi, eukazanak kendu eta egurtu ostean, bide ertzean erdi hilda itzi eben. Handik igaro ziranak, nahizta erdi hilda egoan errukarria ikusi, beste aldera begiratu eta aurrera egiten eben. Bakarrik samariar bat errukitu jakon. Hurreratu eta zauriak lotu, olio igurtzi, bere asto ganean jarri, ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamonean, zidarrezko txanpon bi ostalariari emon, esanez: jagon egizu eta gehiago gastatzen badozu, hurrengoan ordaintuko deustsu” (ikus Lk 10, 25 – 37).

“Gizadia aurrerapen handiak egiten ari da baina oraindio analfabetuak gara beharizan gorrian dagozanei laguntzeko orduan”. Ez jako, ez, arrazoirik falta Aita Santuari. Kontuan dauko parabolaren beste berezitasun hau be, bide bazterrean erdi hilda egoan zauritua judutarra zan. Beragaz errukitu zana, oster, samariarra. Judutarrak ez ebezan samariarrak aintzat hartu ere egiten. Ezta pentsatu ere euren taldeko izan leikenik. Fari-searrak eta lege-maisuak Jesus gustiz iraintzeko ‘samariarra’ eta ‘deabruduna’ zala, leporatzen eutsoen (ikus Jn 8, 48).

Emakume samariarra be arrituta geratuko da, Jesusek ura edateko eskatu eutsonean: “Zelan zuk, judegu izanik, eskatzen deustazu edatekoa niri, samariar nazan honi?” (Jakin behar da, judeguek eta samariarrek ez dabela alkarregaz hartu-emonik) (ikus Jn 4,9)

Hartu lepoan eta segi aurrera!

Jesusek gainditu egiten ditu Judea eta Samariaren arteko mugak. Ez jako inporta Jesusi non jaio edo nongoak garan. Guztion alde emoten dau bere odola. Danok “fratelli tutti”, neba-arrebak gara! Ez bakarrik etxeakoak edo auzokoak edo norbere herrikoak edo taldekoak. Kanpora jaurtitzen ditu gizakiok asmatutako aurre iritziak, hesiak, arrazakeriak, bortizkeriaz lortutako mugarri historikoak... Jesusentzat premina larrian dagozanak dira lagun-hurko kutunenak.

Hobeto esanda, Jesus bera, preminan dagonarengan, egiten da lagun hurko. “Ze gose nintzan, eta jaten emon zeusten; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zinien. Orduan, zintzoek erantzungo deutsoe: Jauna, noiz ikusi zinduguzan goserik edo egarri edo arrotz edo biluzik edo gaixorik edo espetxean... Bene-benean dinotsuet: nire senide txikien honeetariko bati egin zeuntsoena neuri egin zeunsten” (ikus Jn 25, 35 – 40).

Hemen doaz Fratziskoren azalpen eder batzuk parabola honeri buruz:

“Hainbat sufrimentu, oinaze, zauritu, baztertuen aurrean, irtenbide bakarria Samariar onarena da. Beste irtenbideak amaitzen dira edo lapurren eskuetan edo bide ertzean erdi-hilda dagoan errukarria ikusi eta kasurik egin gabe aurrera doazen bidaiarien antzera. Geu ere, nohizbeinka izan gara beste aldera begitu eta aurrera jo dogunak. Baina samariar onaren jokabideak balio dau bakarrik. Zaurituarengana hurreratu, emon geure denporea, berarekin egon, zauriak garbitu, hartu lepoan eta ostatura eroan osatzera gastuak ordainduz. Hori da samariar ona izatea.

“Geroago eta gehiago baztertu eta zauritu ditugu gaur egun. Gure plan ekonomikoak, proiektu politikoak, erlijioso egitasmoak, ekintza sozialak, gizarteko baztertuenen alde izan behar dabe. Hauxe da egungo erronka larria! Heldu da benetako ordua! Zenbat mozorro-jantzi eta etiketa eta harropuzkeria bertan behera jausiko jakuzan zahar eta baztertuengana hurreratuz.

“Zer egin? Bidean erdi hilda dagoan zauritu errukarria bertan behera itzi eta lapurren bila urten edo eurongandik bildurrez ezkutatu? Zaurituta dagoan errukarria izango ete da gure arteko desadostasunak eta bihozgabekeriak zuritzeko?

“Beste faltsukeria handi bat: dana dago txarto!, ez dago inor hau konpondu leikenik! Horrela desilusioa, etsipena, itxaropenik eza besterik ez da sortzen. Inondik ere ez solidaritaterik, ez bihotz batasunik, ez ganorazko ekintzarik.

“Ezin da pentsatu gobernatzailen eskuetan dagoala gauza guztiak konpontzea. Umekeria bat besterik ez da hori! Danok saiatu behar dogu samariar onak izaten. Eta ez ibili inguruan gorrotoak eta erreminak suspertzen.

“Behetik gora barrero hasi behar da. Ez da nahiko norbera samariar onaren bidea egiteko konbentziturata egotea. Bilatu beste lagun batzuk alkarrekin aurrera egiteko. Horixe egin eban samariar onak ostalari bat aurkituz zauritua jagoteko. Alkartuta gehiago lortuko dogu bakarka baino. Ez gara banan-banan jarduteko sasoi batean bizi!”

A. Olea